



“EikenTALENT Bekak” programaren oinarriak

1- TESTUINGURUA

EIKENeko Proiektuen Bankua, EikenTALENT (aintzineko EikenBANK), Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content-eko (Euskadiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalekoen klusterra) enpresa bazkideek diseinatu duten ekintza berritzailea da. Horren bidez, profesionalak ez diren gazte sortzaileen talentua eta Euskal Ikus-entzunezko eta Eduki Digitalen Sektorean diharduten enpresak harremanetan jarri nahi dira, sektorean profesional berrien prestakuntza sustatzeko helburuarekin. Horretarako, gazteen ezagutza teorikoak edo akademikoak garatu nahi dira ikus-entzunezko ekoizpenean esperientzia praktikoa izateko aukera emanez. Lankidetzan horren xedea da, halaber, euskal ikus-entzunezkoan lehiakorrak izango diren produktu berriak sortzea. Horrez gain, sorkuntzarako talentua Euskadin geratzea lortu nahi da.

EikenTALENT Programaren helburua, hain zuzen, proiektu jakin batzuk aukeratzea da (kopurua aldakorra izan daiteke, edizio bakoitzeko baldintzen arabera). Era berean, programa honetatik bestelako lankidetzan gehigarri batzuk sortu ahal izango dira sormen talentuaren eta euskal ekoizpen etxeren artean.

2- XEDEA

EikenTALENT Bekak programa EikenTALENT programaren egitasmo osagarri gisa sortu da; hartara, dagokion edizioko hobekien baloratuta dauden proiektuen titularrak prestakuntza bekak eskuratuko dituzte. Pertsona hauek prestakuntza osatzeko aukera izango dute, EikenTALENT programan parte hartzen duten enpresa batean edo EIKENen sarean dagoen enpresa edo erakunde kolaboratzaile batean.

Beka horien xedea da pertsona horiek **ikus-entzunezko produktu profesional bat sortzeko prozesua modu praktikoan ezagutzeko aukera ematea.**

3- BEKEN EZAUGARRIAK

Programaren onurak: programa honen bekaduna izateak honako onura hauek dakartza:

- a) Prestakuntza jasotzea, enpresan tutoretzako praktikak eginez. Enpresak praktika horren jarraipena une oro egiteko konpromisoa hartuko du, ezarritako prestakuntza helburua bete dadin.
- b) Prestakuntza aldi osorako honakoa jasoko du:

- ❑ Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contentek diru kopuru bat ordainduko duena eta hilero proportzionalki banatuko direnak. Salbu, denen artean (Eiken-Basque Audiovisual & Digital Content, pertsona onuraduna eta enpresa) kantitatearen beste banaketa bat adosten badute.
- ❑ Pertsona onuradunei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea, prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko eskakizunak eta baldintzak arautzen dituen 1493/2011 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek Gizarte Segurantzaren Sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoa garatzen du.

Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contentek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian ezarritako atxikipenak egin eta sartuko ditu.

Bekaren gainerako ezaugarri partikularrak (praktikaren hasiera eta amaiera datak, ordutegiak, lanak bertaratu gabe egiteko aukera, lortu beharreko prestakuntza helburuak,...) Praktiken Hitzarmen Indibidualean arautuko dira. Hitzarmena Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contentek eta enpresak sinatuko dute, pertsona onuradunaren onespenezkin.

4- BEKA OSAGARRIAK

Edizio bakoitzeko baldintzak ikusita, Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenteko Zuzendaritzaren esku dago "EikenTALENT Bekak programa" honen esparruan emango diren beken kopurua handitzeko aukera. Horien onuradunak EikenTALENT programaren edizio horretako sariak jaso duten proiektuen egileak edo saririk jaso ez duten bestelako parte-hartzaileak izan daitezke, erabakitzeko unean, Zuzendaritzak dagozkion ezaugarriak edo baldintzak betetzen dituztela uste baldin badu. Nolanahi ere, Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenteko Zuzendaritzak beka osagarriak arautzen dituzten baldintzak aldatu ahal izango ditu (dirulaguntzaren zenbatekoa, iraupena, etab.) horiek ematea erabakitzeko unean, oinarri hauetan proiektu irabazlearen bekarako aurreikusitako baldintzak Zuzendaritzarekin inolako loturarik izan gabe.

5- PERTSONA ONURADUNAREN "STATUS" JURIDIKOA

Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenteko bekaduna izango da beka honen "status" juridikoa. Hartara, enpresan eginiko prestakuntza praktikoak ez du berekin ekarriko bekadunaren eta erakunde honen arteko laneko loturarik egotea, bekadunak, prestakuntza egin bitartean, enpresako tutoreak emandako argibideei kasu egiteko beharrari kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, enpresari dagokio:

- a) Bekadunaren tutorea izendatzea.

- b) Enpresan eginiko prestakuntza prozesuan bekadunaren jarrera eta gaitasuna ebaluatzea, eta sor daitezkeen halabeharrak konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen akordioak proposatzea Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenti.

6- PERTSONA ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Beka jasotzen duen pertsonak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Beka jasotzean eskatuko zaion dokumentazioa betetzea eta bidaltzea, ezarritako epean.
- b) Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenti eginiko lanaren gaineko txostena bidaltzea, beka ematean jakinaraziko zaizkion maiztasuna, moduak eta edukiak aintzat hartuz.
- c) Prestakuntzako aldiaren garapen arruntean eragin dezakeen edozein gertaera Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenti berehala jakinaraztea.
- d) Bekak irauten duen bitartean, prestakuntzari etekina ateratzeko beharrezkoa den jarrera eta interesa izatea.
- e) Tutoreak emandako argibideei kasu egitea.
- f) Deialdia jasoz gero, programan parte hartzen duten erakunde bileretara eta elkarrizketetara joatea.
- g) Isilpeko informaziorik ez zabaltzea, ez praktikek iraun bitartean ezta ondoren ere.

7- BEKA EZEZTATZEA ETA PROGRAMAN BAJA EMATEA

Enpresak ezeztatzeko proposamen idatzia eta arrazoitua egin ahal izango dio Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenti, prestakuntzako aldiaren uneren batean jarrera edo gaitasun ebaluazioa eskasa baldin bada.

Programan baja emango da:

- Beka ezeztatu delako.
- Pertsona onuradunak borondatez uko egin diolako.

Baja ematearen ondorioz, programari atxikitako eskubide guztiak galduko dira, baja gertatzen den une beretik.

8- INFORMAZIO OSAGARRIA ETA BESTELAKO XEDAPENAK

Programa honetan parte hartzeak Oinarri hauek osorik onartzea dakar.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kasuak Eiken-Basque Audiovisual & Digital Contenteko Zuzendaritzak ebatziko ditu.